

Aretxabaletako campusera itzuliko da Komunikazioa erakundeetan aditu titulua

2014/10/09

Aldaketak daude Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateak eskaintzen duen Komunikazioa erakundeetan aditu tituluan: Bilbon beharrez, azkenean, aurreko bi edizioak bezala, **Aretxabaletako campusean eskainiko da** aditu titulu hori. Ikastaroa hasiko da **2015eko urtarrilean eta urte bereko uztail hasieran amaituko da** ikasleek egindako proiektuen aurkezpen akademikoekin. Izan ere, aurreko bi edizioetan bezala, proiektu praktikoa izango da adituaren ardatza.

Edukiei dagokionari, berebiziko garrantzia emango zaio "Jende eta kamera aurreko komunikazioa" izeneko materiari. Hala, materia hori indartu, eta toki berezia hartuko du hizkuntzaren kudeaketak komunikazioan. Materia horretan jorratuko dira, besteak beste, erakundeetan euskarak hartu behar duten tokia aurrez-aurreko zein Internet bidezko komunikazioan.

Esan bezala, aditua 2015eko urtarrilean hasi eta uztailean bukatuko da ikasleen proiektuaren aurkezpen akademikoarekin. Hori izango da-eta, oraingoan ere, graduondoaren ardatza: komunikazioarekin lotuta, ikasleak egin behar duen proiektu erreala. Beti ere, lan hori egiteko, ikasleak izango du unibertsitatearen tutorearen gertuko laguntza. (Esaterako, aurreko edizioan, hautxek dira landu ziren proiektuak).

Graduondoa erdi presentziala da, alegia, lan gehienak ikasleak egin beharko ditu bere erritmora etxean, interneten bidez. Horretarako, urtero legez, erabiliko da, bereziki, Google+ sare soziala. Gainera, aditua osatuko da osteguneroko aurrez aurreko eskolekin. Eskola horiek hasiko dira 15:00etan eta 19:00etan bukatu.

Hauek izango dira 2015ean emango diren materiak:

1. materia: Marketin eta komunikazio oinarriak (2,5 ECTS)
2. materia: Komunikazioa erakundeetan (4 ECTS).
3. materia. Baliabide teknologikoak (2,5 ECTS).
4. materia: Enpresa eta erakundearen kultura berriak (2,5 ECTS).
5. materia: Jarrerak komunikaziorako (1,5 ECTS).
6. materia: Jende eta kamera aurreko komunikazioa (1,5 ECTS).
7. materia: Mintegiak adituekin (0,5 ECTS).
8. materia: Ikerketa proiektuaren diseinua (1,5 ECTS)
9. materia: Proiektua (13,5 ECTS).

Komunikazioa erakundeetan aditu titulua zuzenduta dago lanean dihardutenei eta lizentziadun berriei. Batetik, lanean dabiltzanei enpresa, elkarte eta erakundeetan, batez ere, komunikazioan, kudeaketan, koordinazioan edo zuzendaritza lanetan; bestetik, aditu titulu hau oso egokia da enpresa-komunikazioaren nondik norakoak ezagutu eta menderatu nahi duten lizentziadun zein gradudunentzat, bereziki ikasketa hauek dituztenentzat: Ikus-Entzunezko Komunikazioa, Humanitateak eta Enpresa, Kazetaritza, Lan Harremanak eta Industria Antolakuntza Ingeniaritza.

Dagoeneko irekita dago aurtengo ediziorako matrikulazio epea. Matrikulari buruz eta, oro har, aditu tituluaren gaineko informazioa jasotzeko, zuzenean jo behar da koordinatzailearengana, Ainhoa Larrañaga doktorearengana. (alarranaga@mondragon.edu).



Urtarrilean hasiko dira aditu tituluaren eskolak Aretxabaletako campusean.